

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2016ko bilketa egiteko aldia irekitzea

Urriaren 8a eta abenduaren 9a bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2016ko ordainagiriak.

Ordaintzeko lekua eta modua

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideraturik dagoen finantza erakundeetako kontuetan, 2016ko abenduaren 9an.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (abisuarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (MiPago).

Gomendioak

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Ordaintzeko adierazi den epea bukatutakoan, ordaindu ez dutenei ordainagiriak premiamenduko betearazte bidez kobratuko zaizkie, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak ezartzen duen errekaragurekin.

Legutio, 2016ko irailaren 6a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA